

PASAIA / Antxoko eta Trintxerpeko udal liburutegietan Internet zerbitzua jarri berri dute erabiltzaileen eskura; zerbitzuak harrera ona izan du

Olatz Mitxelena

Lehengo astelehenaz geroztik Trintxerpeko eta Antxoko udal liburutegietan bazkideek badute Internetera konektatzeko aukera. Modu honetan, erabiltzaileen aspaldiko eskakizun bati bidea eman dio Udalak.

Olatz Alberro Trintxerpeko liburuzaina da. Zerbitzua martxan jarri denetik egun gutxi igaro diren arren, erabiltzaileen artean izan duen harrerari buruz hitz egin du: Batzuk mementuko gauzak begiratzeko erabili dute, baina, aldezturik ordua eskatu behar denez, pertsona bakar bat etorri da oraingoz ezarri dugun sistemaren arabera Internet erabiltzera.

Izan ere, liburutegietan Internet erabili ahal izateko, hainbat baldintza bete behar dira. Erabiltzaileak derrigorrez liburutegiko bazkidea izan behar du. Aldezturik ordua eskatu behar da, eta horretarako eskaera orri batzuk jarri ditugu liburutegietan. Pertsona bakoitzak egunean ordubete erabili ahal izango du, eta adin txikikoak helduak lagunduta etorri behar dute. 12 eta 14 urte bitartekoek gurasoen baimena behar dute, azaldu du Alberrok.

Oraingoz, ordenadore bana jarri dute Antxon eta Trintxerpen. Alberroren ustez, zerbitzuak harrera ona izanez gero, baliteke etorkizunean zabaltzea, bitarteko gehiago jarrita Antxon eta Trintxerpen, eta zerbitzua Donibaneko zein San Pedroko liburutegietara hedatuz.